


## Inflazioa hiru hamarren igo zen apirilean

### KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Euskadiko KPIak berriro egin zuen gora apirilean, eta urte arteko tasa % 3,5ean kokatu zen, aurreko hilean baino hiru hamarren gorago. Goranzko bilakaera hori gasaren prezioetan izandako igoerak eragin zuen, BEZa %10etik %21era aldatu izanak baldintzatuta, bai eta elikagaiek eta alkoholik gabeko edariek martxoarekin alderatuta izan zuten garestitzeak ere.


### KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2022	2023	2024ko apirila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	8,0	3,6	3,5	3,5
Azpiko inflazioa (%84,6)	5,1	6,2	3,1	2,6
- Elikagai landuak (%15,4)	10,2	12,5	4,8	0,8
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	4,7	1,2	0,2
- Zerbitzuak (%49,0)	3,3	4,3	3,3	1,6
Hondar inflazioa (%15,4)	19,5	-6,4	5,5	0,9
- Landu gabeko janariak (%6,5)	10,8	7,3	5,7	0,4
- Energia (%8,9)	26,6	-17,0	4,6	0,5


### AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



### HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



## BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA


Hileko batez bestekoa. Dolarrak upeleko



Elikagaiei dagokienez, garestitze erritmoa berriz ere bizkortu zuten apirilean, aurreko hilekoetan moteldu ondoren. Izan ere, urte arteko tasa aurreko urteko martxoko %15,5etik nabarmen apaldu zen. Oraingo igoyeraren atzean, argindarraren BEZa %21era itzuli izana aipatu behar da, elikagai jakin batzuen ekoizpen kostuak garestitu baitzituen. Halaber, ekainean amaituko dira gaur egun indarrean jarraitzen duten hainbat

## TTF GAS NATURALAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



elikagairen zerga tasen beherapenak, krisiaren aurkako laguntzen artean onartu zirenak, eta premia biziko elikagaien BEZa %0an eta olioarena zein pastarena %5ean mantentzen dutenak. Aitzitik, nota positiboa azpiko inflazioak jarri zuten, %3,4tik %3,1era murriztu baitzen, inflazio globalaren azpitik kokatuz lehen aldiz 2022ko azarotik.

## KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2024ko apirila

	Euskadi	Espania	Eurogunea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>3,5</b>	<b>3,3</b>	<b>2,4</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	5,4	4,7	2,2
Edari alkoholdunak eta tabakoa	3,4	4,1	5,3
Jantziak eta oinetakoak	1,7	0,8	1,4
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	4,0	4,0	0,9
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,5	0,8	0,4
Osasuna	3,4	2,1	3,0
Garraioa	2,9	2,9	1,8
Komunikazioak	-0,1	-0,1	-2,0
Aisia eta kultura	2,0	2,2	2,5
Hezkuntza	2,2	2,9	4,0
Jatetxeak eta hotelak	4,2	4,8	4,9
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	3,1	2,9	4,2

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa.